

Konfuzi(o)

ren presopostu gisa aurkitzen dugu eta, azkenik, mundu-ikuskeraren egoki baten bidez azal dezakegu. Horrexegatik, egungo *teodizearen giltza bezala ageri da kategoria hau.

Konfuzi(o)

Ik. Kong-Fuzi.

Konfuzianismoa

Txinatar tradizioan eraginik handiena izan duen filosofo eskola. Konfuzio izan zen sortzailea (K.a. 551-479 inguruan). Jakintsuak ez zuen hori bere izen propioa, eta bai goitizena: hau da, Kong-Fuzi (K'ung Fu Tzu) ("K'ung filosofoa edo maisua"), latinez Confucius bezala ebaki zena. Konfuzianismoa, berriz, Ru Chia (Ju Chia) da txineraz, hau da, "Jakintsuen eskola".

Bi helburu nagusi ditu Konfuzio-ren filosofoiak: Norbanakoa hobetzea, gizartean duen lekua betetz eta Unibertsoaren harmonia-aren barruan bere izaera betetz; gizarte-egiturak hobetzea, gizakien elkarrekiko leialtasuna landuz eta ordena soziala gordez.

Gizarteko harmonia aurretik eta era transzendentez erabakita, zehaztuta eta ezarrita dago: horixe da *Dao. Gizakiak, Dao-k ezarritako eginkizuna eta lekua bete behar ditu zintzo.

Konfuzio-ren irakatsi moralean erdiguneko lekua du *Ren kontzeptuak, "gizatasuna" bezala itzul daitekeenak eta "onginahi" bezala interpretatzen denak; horren alderantzizko bertutea *Yi berbarekin adierazten da, eta "zuzentasun" bezala itzul daiteke.

Beste kontzeptu etiko garrantzizko bat *Li edo "egokitasuna" da: hots, norberaren ingurukoak (nagusiak, gurasoak, lagunak, etab.) tratatzeko modu egokia edo etiketa. Bata eta bestea (Yi eta Li), ordea, Ren gizatasunak girotuko ditu, gizatiartuko ditu.

*Jakintsuak zertzen eta mamitzen du giza ideal etiko hau.

Konfuzio baikorra zen giza naturari buruz: hau ona denez, jakin behar dena egoki lantzea da. Baina konfuzianismoak bere garapena izan du historian zehar; perfektzio moralaren ahalgarritasuna aztertzean, pentsaera desberdinak agertu dira. Batzuk (Mengzi-k, e.b.) giza natura jatorriz ona ikusten dute, eta giza perfektzioa horren garapen bezala; beste batzuren zat, ordea, legalistentzat adibidez, giza natura endekaturik eta okerturik dago, eta heziketaren eta arauen beharra dago okerrerako joerak zuzentzeko.

Ikasle-andana handia utzi zuen ondoren Konfuzio-k. Hauek eta geroko jarraitzaileak

haren irakaspenak zabaldu eta garatzen saiatu ziren. Horien artean, garrantzi handia ukan zuen eta aipamen berezia merezi du *Mengzi-k.

K.a. 372-289 inguruan bizi izan zen Mengzi. Beronen irakaspenak "Mengzi" izena daraman liburitik ezagutzen dugu. Filosofo politiko eta soziala da Mengzi. Beraren pentsaeran erabat loturik doaz etika eta politika. Haren ustez, errege izateko ez da jatorrizko aristokraziaren beharrik, eta bai filosofoen jakinduriarena: jakintza eta bertutea. Despotismoaren kontrakoa da osorik Mengzi. Gizakia berez ona denez, benetako politika gizatasun hori bideratu eta garatzen duena da, eta ez legeen eta zigorreren ezarpenez zuzendu nahi duena. Gerra erabat ukatu gabe ere, oso antimilitarista agertzen da filosofoa; bai eta antiutilitarista ere etikaren alorrean.

Oso eragin handia ukan zuen luzaroan Mengzi-k.

Konfuzianismoak jaso eta eratu zuen txinatar tradizio ortodoxoa. Horregatik, arrakasta handia izan zuen, eta ondorengo historian zehar ofizialki onartuta egon da, Mao Zedong-ek (Mao Tze dong) kondenatu zuen arte.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Txinatar filosofia.

Kong-Fuzi (Konfuzi)

K.a. 557-479 urte bitartean bizi izan zen txinatar filosofoa da. Moral-doktrina irakatsi zuen, bere herriari lagun ziezaion tradizio kultural eta moralaren erorialdian.

Konklusio logikoa

*Premisa batzuetatik, dedukzio hutsez eta nahitaez ondorioz ateratzen den horri konklusio logiko deritza; adibidez, $p \rightarrow q$ eta $q \rightarrow r$ emanik, $p \rightarrow r$ eman egin da. *Inferentzi erregelak behar logiko horixe eskuratzeko asmatuak daude eta, zuzen jarraituz gero, logikazko ondorio zuzenak atera behar dira.

Konkretua

Espezifikoa edo *bakoizkakoa den oro da konkretua. Hizkuntza arruntean, ikusi eta bitzitako gertakari indibidualen edo kasu singularretan oinarritutako adibide konkretuen bidez datorkigunari deritza; filosofian, berriz, *subjektua, hots, egiazko izakia adierazten du eta ez izaki honen kualitateren bat. Honela, gizakia termino konkretua izango litzateke eta gizatasuna, aldiz, abstraktua.